

GUKA
ZERBITZUAK

Gabonak
2021



Equberri goxo-goxoak opa dizkizuequ



**BODEGA
KATXIÑA**

Ortzaika, 20 · ORIO
943-58 01 66 · 606 36 76 93
www.bodegakatxina.com ·  

**4**

Sarrera

6-8

Tokiko Merkataritza

10-12Erreportajea
Gabonak kantuan**14-16**Erreportajea
Gabon postalak**18-20**Erreportajea
Angulak**22-24**

Errezetak

26

Eskulanak

28-32

Denbora-pasak

34

Talai Berri

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria:

Onintza Lete Arrieta

Kudeatzailea:

Leire Larrañaga

Publizitatea:

UKT kolaboratzaile taldea

Testuak:

Jabi Gonzalez**Elena Marguello**

Diseinua:

Maria Lopez

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK**HEDABIDEKIN
ERE BAI**



GABONETAN BATZEN GAITUENA

Egun gutxi falta dira maite ditugunekin opariak eta momentu samurrak partekatzeko eta urteko otordu berezienak egiteko. Baina pertsona eta familia guztiak ez dira berdinak. Batzuek denbora asko pasako dute sukaldean gotortuta bazkariak eta afariak prestatzen. Beste batzuek, nahiago izango dute herriko edo inguruko zerbitzuak erabili punta-puntako

otorduak eskaintzeko. Opariak erosterakoan ere, batzuek dena prest izango dute dagoeneko; beste askok, azken unean egingo dituzte erosketak han-hemenka.

Hori bai, pertsona eta familia guztiak partekatuko dute Gabon hauetan ere zerbait garrantzitsua: 0 Km eginda aurkituko dute kalitatezko eskaintza zabala jakietan, edarietan eta oparietan. ■



TXANKA

M A R I S C O S

**Gabon hauetan, Mariscos Txankak itsasoaren zapore guztia
etxera hurbiltzen dizu.**

**Zuen eskaerak 24 ordutan etxean!
Gabonetako eskaerak egiteko azken eguna, abenduaren 22a.**

EGIN ZURE ESKAERA WHATSAPP EDO WEBGUNE BITARTEZ
648 27 04 97 -www.mariscostxanka.com- info@mariscostxanka.com
Ortzaika Auzoa - Txanka Baserria z/g ORIO



URTEKO EROSKETA BEREZIENAK, HERRIAN ZOKKETAK, SARIAK ETA GERTUKO TRATUA HERRITIK IRTEN GABE

Eskualdeko merkatarik elkarrekin, ohi bezala, herrian kontsumitzea sustatuko dute aurten ere Gabonen bueltan. Hala, zozketak egingo dituzte herriko saltokietan erosten duten bezeroen artean, eta erakusleho lehiaketak eta Gabonetako argien piztuerak ere bultzatuko dituzte.

Azkoitia, esaterako, lau ekintza prestatu ditu Herriaren merkatarik elkarrekin udalaren laguntzarekin:

1.- Abenduaren 10etik 20ra Gabonetako 20 saski zozkatuko ditu Azkoitia Txartelarekin ordainketak egiten dituztenen artean. Otarra horiek Rural Kutxako erakuslehoan egongo dira erakusgai.

2.- Gabonetako Errifa Potoloa: abenduaren 23tik agortu arte, saltokiek errifak banatuko dizkiete bezeroei. Urtarrilaren 10ean 500 euroko hiru sari zozkatuko dituzte.

3.- Gabonetako XXV. Erakusleho Lehiaketa, abenduan zehar. Irabazleak hil amaieran jakinaraziko dituzte.

4.- Argiak: Gabonetako argiak piztuko dituzte eta musika

jarriko da kaleetan Gabon giroa sortzeko. Saltokiek ere beraien erakuslehoak apainduko dituzte kaleei Gabon xarma emanaz.

Azpeitiko Bertan merkatarik elkarrekin lau ekintza prestatu ditu urteko hilabete berezi honetarako:

1.- Olentzeroren eta Mari Domingiren Ginkana: abenduaren 1etik 24ra, herriko saltokietan erosketak egitean, saltoki horrek zigilua jarriko dio erosleari txartelean, eta sei zigilu desberdinekin txartela betetzen dutenek, 1.000 euroko erosketa txartel baten eta 250 euroko beste bi erosketa txartelen zozketan parte hartuko dute. Abenduaren 24an egingo da zozketa, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ekitaldian.

2.- Erregeen zozketa: abenduaren 24tik urtarrilaren 5era, herriko saltokietan erosketak egitean, zenbakidun txartelak entregatuko dizkiete bezeroei eta horiekin, 500 euroko hiru erosketa txartelen zozketan parte hartuko dute. Urtarrilaren 5ean, Erregeen etorrera ekitaldian egingo dute zozketa.



Aurrez-errea

Km0
baserria

Euskal Esne Bildotsa

Samurra eta Kurruskaria



Baserria Km0 osatzen dugun abeltzain eta artzainek, hain gure den produktu hau jateko ohitura berreskuratzera animatu nahi zaituztegu. Plazer bat delako, gure zainetan dagoelako eta, gainera, produktu hau kontsumituz artzaintza-ren etorkizuna ziurtatzen laguntzen dugulako eta, horrekin, gure paisai eta ingurumena ezagutzen ditugun moduan mantentzen laguntzen dugulako.

Eta horiek denak nahiko arrazoi ez balira, baserria km0koek, latxa ardiaren arkumea aurrez-errea eskaintzen dizuegu. 20-25 minututan prest.

Zerekin egina:
Elaborado con:



Euskal Esne
Bildotsa
Cordero Lechal
del País Vasco



Erosi
HEMEN

baserriakm0.eus

Etxez etxeko zerbitzua

baserriakm0

3.- Gabonetako erakusleihu lehiaketa: herriko saltokiek Gabonetako diseinuekin apainduko dituzte erakusleihoak, eta epaimahai batek hiru erakusleihu onenak sarituko ditu. Aldi berean, herritarrek erakusleihu gustukoena aukeratuko dute Bertanen sare sozialetan.

4.- Gabonetako argiak: Azpeitiko Udalak eta merkatariek elkarrekin Gabonetako argiak piztuko dituzte abenduaren 3an. Helburua herria goxatzea da, eta baita erosketak bertan egiteko kaleak girotzea ere.

Zarauzko Murkil elkarrekin ere antzeko ekintzak ditu urte amaierarako:

1.- Zozketak: abenduaren 1etik 29ra bezeroek txartel bat bete ahal izango dute erosketa egitean, eta zozketa batean parte hartuko dute: 500 euroko lau erosketa txartel eta 250 euroko beste lau zozkatuko dituzte.

2.- Gabonetako argiak eta alfonbrak: Zarauzko Udalak, Murkilek eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak Zarauzko kaleei Gabon giroa ematen diete Gabonetako argiak kale eta plaza askotan ipiniz. Gainera, nahi duten dendei alfonbrak banatzen zaizkie, saltokiaren sarreretan ipin ditzaten.

3.- Erakusleihu lehiaketa: Zarauzko Udalak, Turismo Sailaren eta Murkilen laguntzaz, erakusleihu lehiaketa antolatzen du urtero. Lehiaketako irabazleak oroigarria eta 600 euro jasoko ditu, bigarren saridunak oroigarria eta 300 euro lortuko ditu, eta herritarren boto gehien eskuratzen dituenak, berriz, oroigarria jasoko du. Erakusleihuak urtarilaren 6ra arte egongo dira apainduta.

Azkenik, **Zumaia**ko Gertu merkatariek elkarrekin ere zozketak eta erakusleihu lehiaketa egingo ditu datozen asteetan:

1.- Gabonetako sei otarra zozkatuko ditu herrian erosketak egiten dituztenen artean, baita 200 euroko balioa duten bost txartel ere.

2.- Erakusleihu lehiaketa ere egingo dute, baina horri buzko informazioa aurrerago emango dute. ■



Azpeitiko Gabon Ginkana

Olentzero & Mari Domingi



Abenduaren 24ra bitartean erosketak herrian egiteak saria du

Olentzero & Mari Domingi Gabon Ginkana

Abenduaren 24ra bitartean egin erosketak Azpeitiko 6 establezimendu desberdinetan eta zigilatu erosketaren orri honetan.

* 6 establezimendu ezberdinen zigiluak bete.

* Kartila honez gain gehiago behar izanez gero, elkartearen establezimenduetan eskatu.

* Behin zigilatuta Azpeitian dauden herri buzoietan bota abenduaren 23a baino lehenago

* Abenduaren 24an, aterako da saridunen zerrenda. Berehala jakinaz saridunei.



Urrola kalea, (Damaso geltetik zubi parean)
Olazko Amaren plazan
Jose de Artetxe, (Botika ondoan)
Euskal Herria, (Epaitegiaren atzekaldean)
Loiolako Inazio Hiribidean, (Kalearen hasieran)

Parte-hartzailearen datuak

IZEN ABIZENAK

TELEFONOA

ESTABLEZIMENDUEN ZIGILUAK

1

2

3

4

5

6

1000€ko sari bat
eta 250€ko bi sari

Euskadi, argalana, bien comen



GABON BEZPERA KANTUAN

Gabon bezpera ospatzeko ohitura aspaldikoa da. Ohikoak dira, esaterako, Gabon koruak eta Gabon eskeak. Nor ez da atera Gabon kantak abestera abenduaren 24an? Nork ez ditu entzun herritarrek abesten? Badira, gainera, urtero kalera irteten duten taldeak. Horietako bi dira Azkoitiko Iraurgi Abesbatza eta Aiako Lardizabal Guraso Elkartea.

Bi taldeek urteak daramatzate jendearurrean abestuz. Olatz Santa Cruz Lardizabal Guraso Elkarteko kideak azaldu duenez, duela 45 urte inguru sortu zen guraso elkarte, eta aurreneko urtetik ateratzen dira kantuan. Azkoitiko abesbatzako kide Itziar Alberdik ere azpimarratu du "aspaldikoa" dela Olentzeroren irudiarekin kalera irtetea eta abestea: "Neu Iraurgi Abesbatzan sartu nintzenerako egiten zuten". Alberdik oroitzen duenaren arabera, Mendizaleak izeneko taldea ateratzen zen lehenago, eta haiek laga ostean hasi zen Iraurgi Abesbatza. "Hasieran, herriko elkarteentzat izaten zen biltzen genuen diru guztia", azaldu du. "Azken urteetan, Txolartekoentzat izan da dirua, eta denok elkarrekin atera izan gara kalera izarak hartuta".



Azkoitiko Iraurgi Abesbatzakoak, Kontzejupean.





Aiako Lardizabal Guraso Elkartea auzoz auzo ibiltzen dira Gabon eskean.



Lardizabal Guraso Elkartekoak abenduaren 24ko goizean elkartzen dira, 09:00etan. Haurrak, gaztetxoak zein gurasoak ibiltzen dira kantuan. Goiz partean egiten dituzten ibilbideak "beti berberak" izaten dira Santa Cruzen esanetan, baita Santa Ageda egunean ere: Laurgain auzotik abiatu, Etxeta bailarara joan, Kurpidea, Olaskoegia eta Arrutiegia pasatu, eta Andatzan amaitu. Hala ere, "baliabide faltagatik" ezin izaten dute nahi adina auzo bisitatu; ez dira joaten Elkano,

Urdaneta, Altzola eta Santio Errekara. Eguerdirako bukatzen dute auzoz auzoko buelta, eta arratsaldea herrigunean, alde zaharreko kaleetan barrena igarotzen dute kantuan.

Iraurgi Abesbatzari dagokionez, denborarekin aldatuz joan da ekitaldia. Olentzeroren irudiarekin irteteko ohitura orain urte batzuk baztertu zuten "gero eta jende gutxiago" animatzen zelako. Garai hartan, arratsaldean irteten zuten kalera, eta 20:00etan Kontzejupean amaitzen zuten ibilbidea, han azkeneko hiruzpalau kantuak abesteko. Orain, berriz, eguerdi partean eskaintzen dute emanaldia Kontzejupean, eta oholdza gainean ez dira abesbatzako kideak bakarrik elkartzen. Izan ere, Azkoitiko Musika Bandarekin batera eskaintzen dute orain kontzertua.

Adin guztietako 150 lagun biltzen dira Aian abenduaren 24an auzoak kantuz girotzen





Azkoitiko Musika Banda eta Iraurgi Abesbatza.



Azkoitiarrak bi orduko saioak egiten dituzte astelehene-tan eta asteazkenetan entseatzeko. Gabonetako abestiak Musika Bandarekin adostu ostean, bakoitzak bere kasa entseatzeko du eguna gerturatzen dena arte, eta orduan, "elkarrekin pare bat entsegu" egiten dituztela azaldu du Alberdik. "Musika Bandako zuzendariak zuzentzen du ikus-kizuna egun horretan", gaineratu du. *Adeste Fideles, Oi Bethleem, Eguberri Zuria* nahiz *Hator-Hator* abesten dituzte Azkoitian. Aian, berriz, *Ole Olentzero*, *Alaken* eta *Trakatan Hiru Errege* kantatzen dituzte, besteak beste.

Abeslari ugari hartzen dute parte bi herrietako ekitaldietan, baina batez ere kostako herrian. 150 pertsona inguru biltzen dira han, izan ere. Iraurgi Abesbatzak Musika Bandarekin eskaintzen duen emanaldian, berriz, abesba-

tzako 28 taldekide eta bandakoak elkartzen dira. Bi herrietako kideak bat datoz gauza batean: publikoaren erantzuna asko eskertzen dute biek ala biek. "Gerturatzen den jendea gustura ikusten da, abestiak urtero antzekoak izan ohi dira eta jendea gurekin abesten ikusi ohi dugu", nabarmendu du azkoitiarrak. Santa Cruzen esanetan, berriz, baserritarrek "zain" egoten dira, elkarteko parte hartzaileak noiz azalduko etxe atarira: "Bezperan pastak erosten dituzte, hurrengo egunean abestera joango garenoi eskaini ahal izateko".

Aiarrak azpimarratu du ohitura hauek galtzeak "pena handia" emango liokeela. Kontuak kontu, oraingoz ez dago kuidorik, ikusita zenbat pertsonengana iristen diren Aian zein Azkoitian. ■

sako na
komunizo etxalde ekologikoa

ardi gazta urdina
EKOLOGIKOA

sakona
omunizo etxalde ekologikoa

GURE ETXALDETIK ZURE SUKALDERA

677 98 75 70 • sakonaetxaldea@gmail.com
sakonaetxaldeekologikoa • AZPEITIA

TRIKOTE
Euskal Jantziak

Zigordia Kalea 12, Zarautz • 943 01 05 97
trikotejantziak@gmail.com



BATELA
prest

Gure sukaldetik zure etxera

GABONETARAKO MENU BEREZIAK

**Garaiko produktu
freskoekin osatutako menua**

.....

Geltoki bidea, 7 ♦ Zarautz

T 943 840 140 ♦ **M** 673 38 18 40

@ batelaprest@gmail.com

GABONETAKO AZKEN MOHIKANOAK



Familiarekin eta lagunekin elkartzeko garaia izan ohi da urte amaiera; mahai beraren bueltan, aiton-amonak, gurusoak, osaba-izebak, anai-arrebak, lehengusuak... biltzekoa. Falta direnak ere beti daude, zendu direlako edo urrun bizi direlako. Bigarrenengo kasuan, telefonoa hartu eta hurbilago sentitzen ditugu deituta edo sakelakotik mezuak trukatuta, zeren postalak apenas bidaltzen diren gaur egun.

Eguberri eguna iristear denean bidali ohi zaizkie Gabon postal horiek urrutiko lagun eta senitartekoei. Postal horietan, familia osoa agurtu eta jai zoriontsuak eta urte berri on bat opa izan ohi da. Urteen poderioz, eta batez ere sakelako telefonoaren hedatzearekin, ordea, galtzen ari den ohitura da Gabon postalak bidaltzearena.

Azkuelek



Zigordia kalea, 11

Araba kalea, 41 (Eroski ondoan)

ZARAUTZ

943-13 04 33 • 943-13 33 08 • 619 52 35 39

www.azkuelek.com • azkuelek@gmail.com •  

Jose Manuel Castillok lehen eskutik igarri du gainbehera. Hogei urtetik gora daramatza postari lanetan, eta Zumaiako kaleetan barna egin ohi duen ibilbidean, urtean 30 Gabon postal inguru banatu ditu azken bizpahiru urteetan. Due-la hamabost bat urte, berriz, 120 izaten ziren urteko, gutxi gorabehera. Haren

esanetan, beherakada dagoeneko egonkor-tu da, eta azken urtee-tan banatutako postal kopuruan gorabehera handirik ez da egon.

Gabonetan elkar zoriontzeko Whatsap-pa erabiltzen dugula dio Castillok ere, baina gaineratu du badirela postalak bidaltzearen ohiturari eusten diotenak; tartean bera. "Urtero hamarren bat postal bidaltzen dizkiet Santanderren eta Extremaduran ditudan

senitartekoei, baina ez dut lortu ohitura semeei transmititzetik", aitortu du. Postariaren hitzetan, 50 urtetik gorako herriarrak dira ohiturari leial jarraitzen diotenak; atzerrian bizi direnak dira, batez ere. Hala, postal gehien Ipar Ameriketatik jasotzen dute, Estatu Batuetatik eta Kanadatik. Gutun-azalarengatik identifikatzen ditu; bereziak direla dio, oso apainduak.

Nostalgia etortzen zaio Castillori aurreneko Gabon postalak banatu zituen garaiak oroitzean: "Gaztea nintzenean jendea oso esker onekoa izaten zen postalak eramaten genizkienean. Lana biderkatzen zitzaigun Gabonetan, baina saria ere bazuen. Izan ere, postariok olerki bat zuen postal bana uzten genuen gure ibilbideko buzoi bakoitzean gutun-azal hori batean sartuta, eta gutun azala 5 edo 10 pezetako propinarekin itzultzen ziguten gero. Propina guztiak batuta bote bat osatzen genuen, eta hura izaten zen gure gabonsaria. Postalak banatzean, gainera, agerikoa zen jendearen ilusioa. Batek baino gehiagok sutondoraino eraman ninduen etxean jasotako postal guztiak erakusteko. Jaiotzaren edo Eguberrietako zuhaitzaren alboan jartzen zituzten".

Eskoletan, oraindik, umeei postalak margotzea eskatzen zaie, baina ez da lortu ohitura belaunaldi berrietan errotze-rik, eta, joera aldatu ezean, hamarkada gutxi batzuen buruan zeharo galdu daiteke Gabon ohitura hori. ■





2021eko Gabon gaua Afari berezia

Iberiko sorta

Itsaski krema anisatua

Aza eta zigala ravioliak, banilla eta boilurrarekin
egindako apionabia kremaz lagunduta

Beirak hegazti-zukuarekin, kinoa frijituarekin
eta tupinambur kremarekin

Laranja eta bermut sorbetea

Behi azpizuna, patata pastelarekin
eta azalore gainerrearekin

Arroz-esne moussea azafraiarekin
eta txokolate zurizko zoparekin

Gabonetako gozokiak

Gure upeltegiko aukera onena

89 euro

(ostatua hartuz gero,
pertsonako 174 eurotik hasita)



2021-2022 Urtezahar gaua Afari berezia

Ongietorri koktela

Ezkur-urdaiazpiko iberikoa beirazko ogiarekin
eta tomate onduarekin

Ostra gintonic aparrarekin, sagar berdearekin eta pepinoarekin

Olagarro eta otarrainxka entsalada,
mango eta pistatxo ozpin-olioarekin

Bakailao kokotxak plankton pil-pilean

Zapo ontzutu eta konfitatua, gari sarrazeno
risottoaarekin eta moluskuekin

Pasio fruta eta vodka sorbetea

Txerrikume puska hezurgabetua, sagar eta porruzko hostopilarekin

Anana-kaneloia gazta freskozko moussearekin
eta almibar espeziatuarekin

Gabonetako gozoak

Mahatsa eta cava

Gure upategiko aukeraketa onena

Festa DJarekin eta mokadua

159 euro

(ostatu hartuz gero,
pertsonako 269 eurotik hasita)



ITZULI DA ANGULEN ARRANTZA GABONEN ATARIAN

Supermerkatuetako lehen turroiek eman ohi dute Gabonak gerturatzen ari direnaren aurreneko pista. Janariarekin lotura estua duten ospakizun egunak dira, senitartekoekin bazkari zein afari oparoak egitekoak, eta mahai gainean egoten diren klasikoen artean daude otarrainxkak, bisigua eta bildotsa, besteak beste. Angulak ere izan dira plater tradizional horien artean, baina aingira desagertze arriskuan dagoenetik, arrantza gutxitu eta nabarmen garestitu da jakiaren prezioa. Azken urteetan, kiloak mila eurotik gora saltzeraino iritsi dira arrandegiak.

Dibina Lanberri oriotarraren etxean iaz baino ez zen izan angulen hutsu-

nea Gabon otorduetan. Halaxe aitortu du: "Gurean beti izan ditugu angulak Gabonetan. Gabon gaueko afarian ez bazen, Urtezahar gauekoan zen; baita angulak, eta bestean bakailaoa". Jan ere modu berean egin dituzte beti: muki guztia kendu arte ongi garbitu, ondoren egosi, eta zartaginean olio beroarekin eta baratxuriarekin sueztituta.

Lanberrik esan du iaz angulak afaldu ez izanaren arrazoi nagusia haiek arrantzatzeko debekua izan zela. Izan ere, beraiek harrapatutakoak jan dituzte beti, sekula ez erositakoak. Orain bi urte afaldu zituen angulak izan ziren, hain justu, Lanberrik harrapatu zituen

azkenak. 9 urterekin hasi, eta 82 egin arte aritu da arrantzan, eta ez du baztertzen berriro ekiterik; belaunetatik gaizki dabil, baina buruan darabil aukera hori.

Semeak eta bilobetako batek hartu diote erreleboa, gustura aritzen dira biak. Hori bai, gerturatu ere ez dira egiten Lanberrik gaztaroan harrapatutako kopuruetara: egun bakarrean 25 kilo angula hartzera iritsia da. Orain, ordea, gutxiago dago, eta bi kilo angula jasotzea "sekulako eguna" izatea da oriotarraren hitzetan. Eusko Jaur-laritzaren araudiaren kupoa hortxe dago, gainera: ezin daitezke bi kilotik gora jaso.

Lukas

ARDOTEGIA

www.lukasardotegia.eus

Dastatu, Gozatu, Bizi!

EDARI ESKAINTZA ZABALA
URDAITEGIA eta HARATEGIA
FRUTA eta BARAZKIAK
OKINDEGIA
KUTIXIAK eta...

PERTSONA ALAIAK!

Lukas Ardoteigiko familiak
ZORIONTASUN guztia **topa**
dezazula opa dizugu!



Araudi zorrotza

Angularen arrantzarako araudiak jasozten duen puntuetako bat neurriari edo tamainari buruzkoa da. Gehienezko tamaina muga ezarri zaion arrain baka-rra da, eta ezin dira 12 zentimetro luze baino gehiagokoak harrapatu. Espeziea alebina denean soilik harrapa daiteke; beraz, debekatuta dago aingira helduak arrantzatzea. Guztiz ezohikoa da neurria, arrain mota gehienentzat alderantzizko araua ezartzen baita: arrantzatu ahal izateko gutxieneko tamaina zehazten da.

Angula arrantzatzeko baimenetan ere muga dago. Espezie horren egoera zaugarria denez, erakunde arduradunek urteak daramatzate lizentzia berriak tramitatu gabe: soilik azken arrantza sasoi-ko lizentziak berritzeko aukera ematen dute. Hala, urtez urte murrizten joan dira lizentziak pixkanaka, eta horrela jarraituko dute guztiz desagertu arte.

Angulak arrantzatzeko bi lizentzia mota daude, bat lehorretik arrantzatzea baimentzen duena, eta bestea itsasontzitik egitea baimentzen duena. Azkenarentzat are zorrotzagoa da araudia, arrantza sasoiaren barruan bi aste soilik irauten dituelako: zehazki, azaroaren



15etik hurrengo urteko urtarilaren 31ra arte.

2019-2020ko denboraldian eman zituzten lizentzia kopuruari dagokionez, Gipuzkoan, Oria ibaian eman zituzten gehien: 172 lehorretik aritzeko, eta 48 itsasontzitik aritzeko. Urolan, berriz, 25 izan ziren lehorreko baimenak, eta 28 ontzikoak. Deban ere angula arrantzatze-ko ohitura handia egon da. Han, hori

bai, lehorretik aritzeko lizentziak baino ez dira geratzen; 167, aipaturiko azken denboraldian.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak azaldu du lizentzia gehienak berritu dituztela azaroaren erdialderako; tartean, Dibina Lanberrirena, angulazale beteranoak berak baieztatu duenez. "Badaezpada". ■



BORDA
ARDOAK

Ardoak, elikagaiak eta banaketa zerbitzua

Foruen Kalea, 12 · 20.800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)
Tel.: 943134205 · info@bordaardoak.eus



2021

GABONAK

Zumaiako Merkataria

HERRIKO SALTOKIETAN EROSTEAK SARIA DU



1.000€

200€-tako 5 bono
zozketatuko dira



**GABONETAKO
6 OTAR
EDER**



ARRAUTZA HAUTSIAK ONDDOEKIN ETA FOIEAREKIN

Lau lagunentzako osagaiak:

- 2 patata
- 100 gramo onddo
- Baserriko 4 arrautza
- Foie freskoa, 2 zati (4 xerratan)
- Saltsa egiteko osagaiak:
 - 2 tipula
 - 4 azenario
 - 4 porru
 - Olio
 - Gatza

Nola egin:

- 1.- Aurrena, tipula, azenarioa eta porrua txiki-txiki egin, eta oliotan ondo sueztitu. Kolorea hartzen utzi, saltsarako da eta.
- 2.- Barazkiak zeharo gorrituta ditugunean, dena irabiatu eta saltsa hori berriro egosi, saltsak gorputz eta kolore egokia har dezan.
- 3.- Ondoren, patatak zuritu eta okin eran egin. Horiek plateraren azpialdean jarriko ditugu.
- 4.- Patatak egiten diren bitartean, onddoak hartu, zatikatu eta tipularekin batera dena goxatuko dugu.
- 5.- Eginak ditugunean, aurretik egindako saltsarekin nahastu. Hori pataten gainean joango da.
- 6.- Ondoren, baserriko arrautzak oliotan frijitu eta onddoekin dugun saltsaren gainean jarri.
- 7.- Amaitzeko, foiea hartu, xerra fin samar bat ebaki, eta olio tantatxo batekin frijitu egingo dugu.
- 8.- Urre kolorea hartzen duenean, gatz pitin bat bota, eta arrautzaren gainean jarriko dugu.

Gomendioa: jateko unean, dena nahastu. ■

GABON HAUETAN ERE ESKATU BARAZKIAK
WHATSAPPEZ  683 25 65 67

ETA JASO ZARAUTZEN: MERKATUAN, LAKARIN EDO BIOSENDAN
EDO ZUMAIAN: SURAN



BASO BELTZ
BASERRIA

BERTAKOA. GARAIKOA.

Informazio gehiago gure instagramean:



@basobeltzbaserria

**Produktuen zerrenda eta prezio eguneratuak whatsappeko profilean*



BEHI BUZTANA SALTSAN

Lau lagunentzako osagaiak:

- 2 behi buztan, kilo banakoak eta giltzaduretatik zati-tuta
- Ardo beltza, litroa
- 4 azenario
- 2 tipula
- 4 porru
- Oliba olioia eta gatza

Errezeta:

Buztan zatiei gatza bota eta salteatu egingo ditugu, ongi gorritu arte. Ondoren, labeko bandejan jarri eta ardo beltza botako diegu. Aurrez berotutako labean 20 minutuz erregosiko ditugu 180 gradutan.

Gero, beste olio pitin bat jarriko dugu eta ontzi be-rean, hondoari itsatsita geratu diren zukuak aprobe-txatuz, barazkiak egingo ditugu, su eztiagoan, puska ederretan zatitu ondoren. Sueztitzen utziko ditugu barazkiak gatza botata, baina eragiteari utzi gabe. Ba-razkiek kolorea hartzen dutenean dena irabiatu, eta aurrez erregositako isats zatiak eta atera duten zukua, eta ardoa gehituko dizkiogu. Estali eta egiten utziko dugu guztia, oso su eztian, haragia ongi samurtu eta hezurretik erraz bereizten den arte, baina desegin gabe. Egoste denbora aldatu egingo da erabiltzen du-gun haragiaren arabera. Presio-eltzea erabiltzen badu-gu, 45 bat minutu beharko ditu gutxienez.

Eltzea ireki eta saldatatik aterako ditugu haragi pus-kak. Salda iragaziko dugu ondoren, eta urritzen utziko dugu su eztian. Berriro ere sartuko ditugu saltsan isats zatiak, eta utziko ditugu egiten, oso su eztian, haragia samur gelditu eta saltsa loditu arte.

Garrantzitsua: gisatu hau egiteko, haragiarekin egi-ten diren beste asko bezala, irakite-puntua oso baxua behar da, ezti-ezti egosi behar baitu haragiak. ■



Gabonak

HERRIXEN



ABENDUA REN **10** ETIK **20** RA

Azkoitia txartelarekin ordainduz,

GABONETAKO
20 otarren
ZOZKETA



URTARRILA REN **10** EAN

Gabonetako Errifa potoloa:
500 eurotako
3 sari
zozkatuko dira



Komertzioa
txikixe
herrixen
esentzixe



Euskadi,
azgolana, bien comin



OHARRA: otarrak Rural Kutxako erakusleihoan egongo dira ikusgai eta bertara pasa beharko da jasotzera, saritua tokatu den tiketarekin.


KARTOIZKO OLENTZERO ETA MARI DOMINGI ESKULANA

Komuneko paperaren biribilkiak gauza asko sortzeko balio du; esate baterako, pertsonaia ezagunen figurak. Gaurko honetan Olentzero eta Mari Domingi egiteko erabiliko dugu.

ELEMENTUAK:

- Kartoizko bi biribilki.
- Guraizea.
- Kola.
- Arkatza.
- Kotoia.
- Oparitarako papera.
- Paperezko eskuzapiak.
- Errotulagailuak.
- Kartoia (gaileta kaxa batetik hartu).

OLENTZERO. 1 Biribilkiari bi begi eta ahoa marraztu. **2** Margotu gorputza: zatirik handiena beltzez eta behealdea urdinez. Kotoia hartu eta ilea, bizarra eta bekainak egin. Kontuz kolatu, ahoa eta begiak estali gabe. **3** Ipini biribilkia kartoia gainean zutik eta ingurua marraztu. Ondoren margotu bi abarka. Biribilkiari itsatsi. **4** Lepoko zapia egiteko, hartu paperezko musuzapi bat, hiruki bat ebaki. **5** Marra urdinak egin, aldenik alde eta goitik behera. **6** Zapia kiribildu pixka bat. **7** Txapela egiteko, feltro beltza behar da (ez baduzu, edozein kartoi hartu eta beltzez margotu). Ebaki bi borobil eta kolatu. Txapelari bolumena emateko, bi borobil artean kotoi pixka bat jarri. **8** Elementu guztiak jarri Olentzerori. Ez ahaztu sudur gorria! Hemen paper gorritz eginiko pinporta bat erabili dugu horretarako.



MARI DOMINGI. 9 Biribilkiari aurpegia eta gorputza margotu. **10-11** Olentzerori bezala, abarkak egin eta biribilkiari itsatsi. Ondoren, buruko zapia egin, paperezko musuzapiak erabiliz. Bi zatitan egin dugu: batetik aurpegiaren ingurukoa, eta bestetik buru gainekoa. **12** Gona egiteko, hartu oparitarako paper zati luze bat eta toles batzuk egin, gonak bolumena har dezan. Biribilkiari itsatsi. Nahi izanez gero, Mari Domingiri ere sudur gorria egin. ■

GABONAK 2021



ABENDUAK 1 - 29

ZARAUZKO TURISMO BULEGOA



MURKIL

Zarauzko
Dendarien elkarte

www.murkil.com

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Mezua

Erabil ezazu honoko alfabetoa
Olentzerok zer dioen jakiteko.
Iruditxo bakoitzaren azpiko
laukian dagokion letra jarri eta
hitzak osatuko dituzu.





Itzala

Ea, bide batez,
zein dira Olen-
tzeroren eta
zakurraren itzal
zuzenak?



OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAXIXATZEN

**UROLA KOSTAKO
HITZA**

UZTARRIA

**ZARAUZKO
HITZA**

Elurra mendian

Zenbat animalia ikusten dituzu paisaia elurtu honetan?





Zer ikusten duzu?

Makina bat bakarrik...

Ez, begiratzen jarraitu... Labe bat

Eta atzean?

Profesionaltasunez eta maitasunez
sortutako pizzarik ederrenak



**Kalitatezko
produktuekin eginak,
Maskaradako
urdaiazpikoa,
Olanoko odolkia...**




Bixkonde kalea 13, 20800 Zarautz
Ordutegia: 365 egun irekita


www.pizzaprest.com · Pizzaprestzarautz 

Domino zatia

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin. Irudiak marrazteko gogorik ez baduzu eta hau puskatzea axola ez bazaizu, bazterretik komeni zaizuna ebaki eta dagokion tokian itsasi.



"KaNT uZ BIZI NAIZ eta
KaNTUz nAHI BiZI"



SBAGLIATO KOKTELA:

Sbagliato kokteka egiteko, izotza jarri behar da ardo kopa batean, eta momentuan moztutako laranja xerra baten erdia ere bai, eta horren zuku pixka bat bota kopara. Ondoren, Mari Gorri bermuta eta Campari bota, eta nahasi. Azkenik, Talai Berri Zuria txakolina gehitu behar zaio, eta oso kontuz nahastu behar da guztia, txakolinaren berezko karbonikoa ez galtzeko. Amaitzeko, laranja azal txispa batzuk jar daitezke gainean, aromatizatzeko. Aperitibo-koktela da, baina edozein ordutan sartzen da ondo.

Koktelaren jatorria Italian dago. *Sbagliato* hitzak oker esan nahi du italieraz. Izen hori daraman koktela 1960eko hamarkadan sortu zen Milanen, tabernako barrako gaizki ulertu baten ondorioz. Izan ere, bezero batek Negroni koktela eskatu zuen –bermuta, Campari eta ginebra neurri berean jarrita–, baina zerbitzariak, ginebraren ordeztu, prosecco bat jarri zion (ardo italiar apartsua).



MARI GORRI

Mari Gorri bermuta egiteko Hondarrabi Zuri mahatsaren zukua bakarrik erabiltzen da, Zarauzko Talai Berri mahastietan hazitakoa.

Lehenik eta behin, 80 belar usaintsu erabilia estraktu bat egiten da, 300 litroko edukiera duten antzinako hari-zondo frantses kupeletan.

Behin estraktua eginda, Hondarrabi Zuritik lortutako zukuekin, azukrearekin, karmeloarekin eta ardo alkoholarekin egiten da nahasketa.

Finketa eta atsedenaldi denboraldi bat pasatu eta gero, hotzarekin egonkortu eta botilaratzen da.

Mari Gorri bermutak anbar kolore iluna du, eta edan berritan, belar usaintsuek eta espezieek biltzen dute usaimena, besteak beste, karmeloren edo banillaren lurrinak gogoraraziz. Ahoan, berriz, puntu mingots eta sendoa du. ■



ORIO · ZARAUTZ · ZUMAIA · AZPEITIA

Kaïoa



Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On, Kaïoa taldearen partetik

A! Oentzero zain dago zuek on-line opariren bat eskatzeko. Aurten, azkenean, WiFi-a jarri baitu bere txabolan. Egiozue zuen eskaria **www.kaioa.es** weborrian edo **688 85 28 31** Whatsapp zenbakian.



facebook.com/kaioa.denda



@kaioa_denda



Urte berrirako
bizipoza, maitasuna
eta zoriontasuna
opa dizkizuegu

Urte berri on